



Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko komertzio txiki, ostalaritza establezimendu, autonomo nahiz enpresentzako 2020ko diru laguntzak

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Diru-laguntza honen xedea da Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko, komertzio txiki, ostalaritza establezimendu, autonomo nahiz enpresa txikien itxiera, beti ere, alarma egoeraren ondorioz jarduera ekonomikoa eteteak sortarazitako kalte ekonomikoak jasan dituztenei dagokionean laguntza ematea.

Baliabide ekonomiko hauek apartekoak, ez aldizkakoak dira.

NORK ESKA DEZAKE?

1. Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte 2020ko martxoa ren 14an baldintza hauek betetzen zituzten enpresaburu indibidualek, profesionalak eta enpresa txikiak.

– Idiazabalen egiten badute enpresa-jarduera.

– Alarma-egoerak jarduera nagusia eten badu edo fakturazioa murriztu egin bada 2020ko apirila eta maiatzetan bi hilabeteetako fakturazioen batuketan, % 40 edo gehiago alarma-egoeraren ondorioz, fakturazio hori alderatuz gero 2019ko apirila eta maiatzeko fakturazioarekin. Ondasun-erkidegoen edo pertsonalitate juridikorik gabeko entitateen kasurako, horien kideek diru-laguntza jaso ahal izango dute profesional edo enpresaburu indibidual moduan.

– Alarma egoera ezartzen duen dekretuaren indarraldia amaitzean, hau da, negozioak irekitzeko baldintzak ematen direnean, laguntza jaso dutenek, gutxienez 4 hilabetez jarduera martxan eduki beharko dute.

2. Era berean, egiaztatu beharko dute.

– 2020ko martxoaren 14an Idiazabalgo udal-mugarlean Jarduera Ekonomikoen zergaren erroldan alta emanda zegoela.

– Egunean dituela zerga-betebeharrak, eta Gizarte Segurantza rekikoak ere bai.

Horiek guztiak 10 langile artekoak izango dira, eta 2019an 1.000.000 €-tik beherako eragiketa-bolumena izango dute.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

[A042 Garapen ekonomiko departamentuko dirulaguntzak eskatzeko eskaera orria](#)

NANaren fotokopia (eskatzailea pertsona bada) / IFZren fotokopia (enpresa bada).

Jarduera Ekonomikoen Zergaren (JEZ) ziurtagiria.

Jarduera burutzen duela egiaztatzen duen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Alta historikoa. (Udalak egiaztatuko du).

Gizarte Segurantzaren betebeharratan egunean egotearen ziurtagiria.

Zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

Besteren konturako langileak kontratatuta izanez gero: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren langileen zerrenda nominalak (lehengo TC2), 2020ko martxotik uztaile bitartekoak.

Autonomoen hartu-agiria, 2020ko otsailekoa eta martxokoa.

2019 eta 2020ko bigarren hiruhilekoko autolikidazioa (300 inprimakia).

2019 eta 2020ko apirila eta maiatzeko hilabetei dagokien Jaulkitako fakturen erregistro-liburua.

Langileak izango balitu, hauren kontratueren kopia bat

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

[HAZ bulegoa](#)

Idiazabalgo Udala

Plaza Nagusia 3 20213 IDIAZABAL

08:30-14:30 Ostiraletan, Aste Santuan, Uztaila, Abuztua eta Gabonetan 08:30-14:30

943187100

Internet bidez:

[Gorago aipatzen diren beharrezko AGIRI guztiak bete eta hasi online tramitazioa](#)

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Doan

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: 2 hilabete

Prozedura arrunta. Legezko gehieneko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

[38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa](#)

[Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua](#)

[Diru-laguntza, transferentzia eta dirua emateko araubidearen ordenantza orokorra](#)

[Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko komertzio txiki, ostalaritza establezimendu, autonomo nahiz enpresa txikien itxierak, beri ere, alarma egoeraren ondorioz jarduera ekonomikoa eteteak sortarazitako kalte ekonomikoak jasan dituztenentzat udal DL](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Ez dagokio

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatea

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Turismo eta Garapen Ekonomikoa - Turismo eta Garapen Ekonomikoa

OHARRAK

Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanik.

DATU PERTSONALEN BABESA

Tratamenduaren xedea da legeak agindutakoa betetzea edo interes publikoa xede duen misioa betetzea edo ardurarari emandako botere publikoak egikaritzea, lege-maila duen arau batek emandako eskumenean oinarritutakoak Begiratu «Datuen Babesari eta Segurtasunari buruzko Politika»ren atala begiratu (www.idiazabal.eus)